

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 528/2020 Erabakia, azaroaren 3koa. Onestea Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 4ko 401/2020 Erabakiaren aldaketa, bai eta "Enargi Araba SA" foru sozietate publikoaren estatutu berriak ere

Abuztuaren 4ko 401/2020 Erabakiaren bidez, Foru Gobernu Kontseiluak Enargi Araba SA foru sozietate publikoa eratzea onetsi zuen.

Bosgarren artikuluan, Enargi Araba SA sozietatearen estatutu sozialak onartu ziren, erabaki horren eranskinean jasotakoari jarraituz.

Behin onartutakoan, notarioari bidali zitzaizkion, idazketako eta Merkataritza Erregistroan inskribatzeko izapideei ekiteko.

Behin estatutu horiek notarioarekin aztertu ondoren, horietan aldaketa batzuk egiteko beharra ikusi zen.

Honako hauek dira hasieran onartutako estatutuei egiteko planteatutako aldaketak.

9.1.4. artikulua. Honako paragrafo hau ezabatu da:

"Hark eskuordetze hori osorik edo hein batean erabili ahalko du, edo ez egikaritzea, merkaturko baldintzei edo sozietatearen berarenei erreparatuz, edo bere iritziz erabaki hori justifikatzen duen egitate bati. Horren berri eman beharko du egikaritzeko emandako epea amaitu eta lehen Akziodunen Batzar Nagusian."

Honela idatzita gelditu da:

"9.1.4. Kapital soziala handitzea eta murriztea, hala badagokio, Administrazio Kontseilua eskuordetuz, legeak aurreikusitako epeen barruan, kapital soziala handitzeko dagoeneko hartutako erabakia egikaritzeko ahalmenarako, edo kapital soziala handitzea behin edo gehiagotan erabakitzeko ahalmenarako. Batzar Nagusiak egikaritzeko data edo datak ezarri ahalko ditu"

11.2. artikulua. "c" apartatu bat gehitu da

c). Legez aurreikusitako gainerako kasu guztietan.

11.2. artikulua. Paragrafo bat gehitu zaio

Batzar Nagusiari dei egingo zaio sozietatearen webgunean argitaratutako iragarki baten bidez. Deialdia ez badago sortuta, inskribatua eta argitaratua Kapital Sozietateei buruzko Legearen Testu Bateginaren 11. bis artikuluan jasotako baldintzetan, deialdia "Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean" argitaratuko da, baita egoitza soziala kokatuta dagoen probintzian zirkulazio handienetakoa duen egunkari batean ere.

12.1. artikulua. "ahalko dira" hitzak "beharko dira" hitzekin ordeztu dira, eta, beraz, horrela gelditu da idatzita:

"1. Administrazioaileak Batzar Nagusiaren bileretara bertaratu beharko dira."

16.1. artikulua. Honako paragrafo hau gehitu da:

"Kontseilukideen heren bat gutxienez osatzen duten administrazioaileek dei egin ahalko dute, eta gai zerrenda helarazi beharko dute, egoitza soziala dagoen udalerrian egiteko, baldin eta presidenteari eskatu ondoren hark hilabeteko epean deialdia egin ez badu."

Halaber, Erabakiaren zazpigarren eta zortzigarren apartatuak aldatu dira, idazkera egokiagoa izan dezaten.

Ondorioz, bidezkoa da baliorik gabe uztea Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 4ko 401/2020 Erabakiaren bosgarren apartatua, eta bidezkoa da estatutuak planteatutako aldaketekin onartzea.

Horregatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehena. Onartzea Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 4ko 401/2020 Erabakiaren aldatzea, eta baliorik gabe uztea erabaki horren bosgarren apartatua, Enargi Araba SA sozietate publikoaren estatutuak onartu zituena.

Bigarrena. Enargi Araba SA sozietatearen estatutu sozial berriak onartzea, erabaki honi eranskin gisa txertatutakoak.

Hirugarrena. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 4ko 401/2020 Erabakiaren zazpigarren apartatua, honako hau dioena:

“Zazpigarrena. Administrazio Kontseiluko ordezkariak izendatzea, lau urterako. Honako kargu eta pertsona hauek osatuko dute:

Presidentea: Ingurumeneko eta Hirigintzako foru diputatu titularra, Josean Galera Carrillo jauna.

Kontseilukideak:

– Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatua, Pilar García de Salazar Olano, presidenteordea izango dena.

– Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatua, Cristina González Calvar.

– Ogasunaren, Finantzen eta Aurrekontuen foru diputatua, Itziar Gonzalo de Zuazo.

– Lurralde Oreka Saileko foru diputatua, Irma Basterra Ugarriza.

– Nekazaritza Saileko diputatua, Eduardo Aguinaco López de Suso.

– Arlo Estrategikoetako zuzendaria, Jose Luis Cimiano.

– Lurralde Oreka zuzendaria, Jesús María Guinea Díaz de Otalora.

– Ingurumenaren eta Hirigintzaren zuzendaria, Natividad López de Munain Alzola.

Idazkaria: Aldundiko Idazkaritza Nagusiko zerbitziburua, Inés Vadillo Alzola, eta haren ordezkaria izango da, hala badagokio, hark izendatutakoa.”

Hau esan behar du:

“Zazpigarrena. Administrazio Kontseiluko ordezkariak izendatzea, bederatzi kidek osatuko dutena, eta lau urterako honako kargu eta pertsona hauek izendatzea:

Kontseilukideak:

– Ingurumenaren eta Hirigintzaren Saileko foru diputatu titularra, José Antonio Galera Carrillo, sozietateko presidente ere izango dena.

– Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatua, Pilar García de Salazar Olano, presidenteordea izango dena .

– Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatua, Cristina González Calvar.

- Ogasunaren, Finantzen eta Aurrekontuen foru diputatua, Itziar Gonzalo de Zuazo.
- Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua, Irma Basterra Ugarriza.
- Nekazaritza Saileko diputatua, Eduardo Aguinaco López de Suso.
- Arlo Estrategikoetako zuzendaria, Jose Luis Cimiano.
- Lurralde Orekako zuzendaria, Jesús María Guinea Díaz de Otalora.
- Ingurumenaren eta Hirigintzaren zuzendaria, Natividad López de Munain Alzola.

Administrazio Kontseiluko idazkari eta ez kontseilukide izendatzea Aldundiko Idazkaritza Nagusiko zerbitziburua, Inés Vadillo Alzola.”

Laugarrena. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 4ko 401/2020 Erabakiaren zortzigarren apartatua, honako hau dioena:

Zortzigarrena. “Ingurumenaren eta Hirigintzaren Saileko zuzendaria, Natividad López de Munain Alzolari baimena ematea sozietatea eskritura publikoan eratzeko beharrezko egintzak egiteko eta dokumentuak emateko, baita dagozkion erregistro publikoetan inskribatzeko eskatzeko ere. Eskuordetze honen barruan daude, berariaz, argitzeko, zuzentzeko edo zabaltzeko ahalmenak, beharrezkoak suertatuz gero.”

Hau esan behar du:

“Zortzigarrena. Ingurumenaren eta Hirigintzaren Saileko zuzendaria, Natividad López de Munain Alzolari baimena ematea sozietatea eskritura publikoan eratzeko beharrezko egintzak egiteko eta dokumentuak emateko, baita dagozkion erregistro publikoetan inskribatzeko eskatzeko ere. Eskuordetze honen barruan daude, berariaz, erabaki honetako edukia eta onartutako estatutu sozialetakoa argitzeko, zuzentzeko edo zabaltzeko ahalmen osoak, eta, bereziki, horiek Merkataritza Erregistroko titularrak bertan inskribatu ahal izateko egindako errekerimenduetara eta oharretara egokitzekoa.”

Bosgarrena. Erabaki honekin amaitzen da administrazio bidea, eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 123. artikuluari jarraituz, hautazko berraztertze errekurtoa aurkeztu ahalko da Foru Gobernu Kontseiluaren aurrean, hilabeteko epean, hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo, bestela, zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan aurkaratu ahalko da, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko azaroaren 3an

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ingurumenaren eta Hirigintzaren Saileko diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumenaren eta Hirigintzaren zuzendaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA

Enargi Araba SA sozietatearen estatutu sozialak 2020ko urriaren 2a

I. TITULUA

SOZIEATE IZENA, EGOITZA, XEDEA

1. artikulua. Sozietate izena eta egoitza.
2. artikulua. Xede soziala.
3. artikulua. Iraupena.

II. TITULUA

KAPITAL SOZIALA, AKZIOAK ETA AKZIODUNAK

4. artikulua. Kapital soziala.
5. artikulua. Kapitala handitzea eta txikitzea.
6. artikulua. Akzioak eta eskubideak eskualdatzeko araubidea.
7. artikulua. Lotura.
8. artikulua. Sozietatearen gobernua eta administrazioa.

III. TITULUA

SOZIEATEAREN ORGANOAK

1. KAPITULUA

AKZIODUNEN BATZAR NAGUSIA

1. ATALA

BATZAR NAGUSIAREN ESKUMENA

9. artikulua. Batzar Nagusiaren eskumena.

2. ATALA

BATZAR NAGUSIAREN ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDUA.

10. artikulua. Batzar Nagusi motak.
11. artikulua. Batzar Nagusiaren deialdia egiteko eskumena.
12. artikulua. Batzar Nagusietara bertaratzea eta ordezkari-tza.
13. artikulua. Erabakiak hartzea.

2. KAPITULUA

ADMINISTRAZIO ORGANOAK

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

14. artikulua. Administrazio organoaren egitura.

2. ATALA.

15. artikulua. Administrazio Kontseilua.
16. artikulua. Administrazio Kontseiluaren deialdia.
17. artikulua. Kontseilua biltzeko lekua.
18. artikulua. Administrazio Kontseilua eratzea.
19. artikulua. Administrazio Kontseiluaren eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko modua.

3. ATALA

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN ESKUMENA

20. artikulua. Administrazio ahalmenak eta eskumenak.

21. artikulua. Ahalmenak eskuordetzea.

22. artikulua. Ordezkaritza boterea.

23. artikulua. Kontseiluko presidentea.

24. artikulua. Kontseiluko presidenteordea.

4. ATALA

ERABAKI SOZIALAK AGERKARI PUBLIKORA BIDALTZEA

25. artikulua. Agerkari publikora bidaltzeko ahalmena duten pertsonak.

IV. TITULUA

URTEKO KONTUAK

26. artikulua. Urteko kontuak egitea.

27. artikulua. Ekitaldi soziala.

28. artikulua. Urteko kontuak egiaztatzea.

29. artikulua. Urteko kontuak onartzea eta gordailutzea.

V. TITULUA

SOZIETATEA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

30. artikulua. Sozietatea desegitea.

31. artikulua. Likidatzaileak. Desegindako sozietatearen ordezkaritza boterea.

VI. TITULUA

BESTE XEDAPEN BATZUK

32. artikulua. Sozietatearen jardueren kontrola.

33. artikulua. Sozietateko langileak.

34. artikulua. Aplikatzekoa den araudia.

I. TITULUA SOZIEKATE IZENA, EGOITZA, XEDEA

1. artikulua. Sozietate izena eta egoitza

1. Merkataritza sozietate anonimo eta pertsona bakarrekoa osatu da, Enargi Araba SA sozietate izenarekin, estatutu honek ezarritako baldintzetan eta bertako irismenarekin.

2. Sozietatearen egoitza helbide honetan dago: Probintzia plaza z.g., Gasteiz.

3. Sozietatearen administrazio organoak egoitza soziala mugitu ahal izango du, baina soilik Arabako Lurralde Historikoaren barruan.

Halaber, sukurtsalak, agentziak edo delegazioak sortu, kendu edo mugitu ahalko ditu.

2. artikulua. Xede soziala

1. Sozietatearen xedea da energia iturri berriztagarrietatik sortutako energia ekoizpenarekin lotutako era guztietako jarduerak sustatzea, energia iturri berriztagarrietatik sortutako energia ekoizpeneko instalazioak sustatzea, eraikitzea eta ustiatzea barne.

Zehazki ez bada ere, sozietatearen helburua izango da mota guztietako jarduerak, obrak eta zerbitzuak egitea, propioak edo honako hauen negozioekin lotutakoak:

a) Energia sortzea eta merkaturatzea, iturri berriztagarriak erabiltzen dituzten instalazioen bitartez, esaterako, ekoizpen hidraulikoa, eolikoa, eguzkiko termikoa, fotovoltaikoa, eta biomasatik edo hidrogenotik lortutakoa.

b) Bioerregaiak eta produktu eratorriak ekoiztea, tratatzea eta merkaturatzea.

c) Aurreko "a" eta "b" apartatuetan jasotako instalazioetako proiektuak egitea, bertako ingeniariak, horiek eraikitzea, abiatzea, horien mantentze lanak eta horiek besterentzea, hala berezkoak nola hirugarrenenak, baita instalazio mota horiekin lotutako azterketa zerbitzuak, ingeniariak azterlanak edo energia aholkularitzakoak, ingurumen aholkularitzakoak eta aholkularitza tekniko eta ekonomikokoak ere.

2. Sozietateak xede soziala osatzen duten jarduerak, proiektuak, egintzak eta kontratuak, osorik edo zati batean eta zeharka ere egin ahal izango ditu.

Ondorio horietarako, kapital publiko, pribatu edo mistoko akzioak, obligazioak, partaidetzak eta eskubideak eratu, eskuratu, parte hartu eta atzeman ahal izango ditu merkataritza sozietateetan –horien jarduera eremua edozein dela ere–.

Bereziki, sozietate kooperatiboen bazkide laguntzaile bihurtu ahal izango da sozietatea, eta horiek xurgatu ere egin ahal izango ditu, bat egite bereziaren bidez, legez ezarritako baldintzetan.

2. atal honetan jasotako kasu guztietan, ezinbesteko betekizun izango da merkataritzako sozietateen eta/edo sozietate kooperatiboen xede soziala bat etortzea, bateragarria eta/edo osagarria izatea sozietate horrekin berarekin.

3. Legez betekizun edo baldintza espezifikoak betetzea nahitaezkoa bada jarduera jakin batzuk egiteko eta horiek zehatz-mehatz betetzen ez baditu, sozietateak ez ditu jarduera horiek egingo.

3. artikulua. Iraupena

Sozietatearen iraupena mugagabea da, eta eragiketekin hasiko da fundazio eskritura emateko egunean.

II. TITULUA KAPITAL SOZIALA, AKZIOAK ETA AKZIODUNAK

4. artikulua. Kapital soziala

Kapital soziala hirurogei mila eurokoa da (60.000,00 euro), ehun euroko (100,00 euro) balio nominaleko seiheun (600) akzio izendunetan banatua. Mota bakarrekoak izango dira, guztiak arruntak, korrelatiboki 1etik 600era zenbakitutakoak, biak barne. Akzio guztiak osorik Arabako Foru Aldundiak izenpetu eta ordaindu ditu.

5. artikulua. Kapitala handitzea eta txikitzea

1. Kapital soziala handitu edo txikitu egin ahalko da, bazkide bakarrak hala erabakiz gero, Akziodunen Batzar Nagusiaren eskumenak erabiliz, sozietate anonimoen buruzko xedapenek kasu horietarako ezarritako betekizunen arabera, eta bertan aurreikusitako modalitateei jarraituz.

2. Kapitala murriztu egin ahalko da bazkide bakarrak hala erabakitzen badu Akziodunen Batzar Nagusiaren eskumenak erabiliz, akzioen balio nominala txikituz, horiek amortizatuz edo trukatzeko multzokatuz, legeak baimendutako helburuekin.

6. artikulua. Akzioak eta eskubideak eskualdatzeko araubidea

Libre da sozietatearen akzioak edozein hirugarreni eskualdatzea, sozietateko akziodun direnei eta ez direnei.

7. artikulua. Lotura

Akzio bat edukitzeak berekin dakar bat egitea sozietatearen estatutuekin, oso-osorik, eta Batzar Nagusiaren eta Administrazio Kontseiluaren erabakiekin.

8. artikulua. Sozietatearen gobernua eta administrazioa

Sozietatea Akziodunen Batzar Nagusiak gobernatuko du, eta Administrazio Kontseiluak administratuko.

III. TITULUA SOZIEATEAREN ORGANOAK 1. KAPITULUA AKZIODUNEN BATZAR NAGUSIA

1. ATALA

BATZAR NAGUSIAREN ESKUMENA

9. artikulua. Batzar Nagusiaren eskumena

1. Akziodunen Batzar Nagusiak erabakiko ditu Legearen eta estatutuen arabera bere eskumenekoak diren gai guztiak, eta bereziki dagokio Batzar Nagusiari honako erabaki hauek hartzea:

1. Administrazioaileak izendatzea, berriz hautatzea edo berrestea, eta haien kargugabetzea erabakitzea. Horrek ez dio eragozpenik eragingo kooptatzeko ahalmenari eta indarrean dagoen legediaren arabera akzionisten proportziozko ordezkapenaren eskubideari.

2. Sozietatearen eta, hala badagokio, bere sozietate taldearen kontuen auditoreak izendatzea eta berriz hautatzea, baita horiek atzera botatzea edo banatzea erabakitzea ere.

3. Banakako urteko kontuak eta, hala badagokio, sozietatearen kontu bateratuak onartzea, eta ekitaldi bakoitzaren emaitzaren aplikazioaren inguruko ebazpena ematea eta kudeaketa soziala zentsuratzea.

4. Kapital soziala handitzea eta murriztea, hala badagokio, Administrazio Kontseilua eskuordetuz, legeak aurreikusitako epeen barruan, kapital soziala handitzeko dagoeneko hartutako erabakia egikartzeko ahalmenarako, edo kapital soziala handitzea behin edo gehiagotan erabakitzeke ahalmenarako. Batzar Nagusiak egikartzeko data edo datak ezarri ahalko ditu.

5. Bonuak edo obligazioak, arruntak, bihurtgarriak edo trukagarriak, warrantak edo aukerak ematea, indarrean dagoen legediari jarraituz eta horiek emateko ahalmenarako Administrazio Kontseilua eskuordetzea.

6. Estatutu sozialak aldatzea.

7. Kapital publiko, pribatu edo mistoko akzioak, obligazioak, partaidetzak eta eskubideak eratzea, eskuratzea, parte hartzea eta atzematea merkataritzako sozietateetan –horien jarduera eremua edozein dela ere–, haien xede soziala sozietate honenarekin bat badator, bateragarria bada eta/edo osagarria bada.

8. Sozietate honen xede sozialarekin bat datorren, bateragarria den eta/edo osagarria den xede soziala duten sozietate kooperatiboen bazkide kolaboratzaile izaera eskuratzea eta, are gehiago, horiek xurgatzea bateratze bereziaren bidez, legez ezarritako moduan.

9. Sozietatea desegitea, bateratzea, zatitzea, haren aktiboa eta pasiboa osorik lagatzea, eta sozietatea bereiztea eta eraldatzea.

10. Administrazio Kontseiluak hari erabakitzeke eramandako edozein gai.

2. Legez edo estatutuen bitartez Batzar Nagusiari esleitu gabeko eskumenak administrazio organoari dagozkio.

3. Batzar Nagusiak argibideak eman ahalko dizkio administrazio organoari, edo organo horrek kudeaketako gai jakin batzuen inguruan hartu beharreko erabakiak bere baimenaren mende utzi ahalko ditu, eragozpenik ekarri gabe 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren, uztailaren 2koaren, Kapital Sozietateei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenaren, 234. artikuluan xedatutakoari.

2. ATALA

BATZAR NAGUSIAREN ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDUA

10. artikulua. Batzar Nagusiaren bilera motak

1. Batzar Nagusiaren bilerak ohikoak edo ezohikoak izan ahalko dira.

2. Ohiko Batzar Nagusia halabeharrez ekitaldi sozial bakoitzeko lehen seihilekoaren barruan bilduko da, kudeaketa soziala zentsuratzeko, urteko kontuak onartzeko eta emaitzaren aplikazioaren inguruko ebazpena emateko, baita gai zerrendan jasotako beste edozein gai jorratzeko eta horren inguruko erabakiak hartzeko ere.

3. Aurreko paragrafoan aurreikusitako batzar guztiak Ezohiko Batzar Nagusitzat joko dira.

11. artikulua. Batzar Nagusiaren deialdia egiteko eskumena

1. Batzar Nagusirako deialdia sozietatearen administrazio organoak egin beharko du.

2. Administrazio organoak Batzar Nagusirako deialdia egin ahal izango du, baldin eta ego-kia iruditzen bazaio interes sozialetarako, eta honako kasu hauetan nahitaez egin beharko du:

a) Aurreko artikulua 2. apartatuan aurreikusitako kasuan.

b) Arabako Foru Aldundiak, haren arauen arabera osatutakoak, batzarra egiteko erabaki balioduna hartzen duenean.

Xedapen hori indarrean egongo da Arabako Foru Aldundia sozietateko akziodun bakarra den artean.

c) Legez aurreikusitako gainerako kasu guztietan.

Batzar Nagusiari dei egingo zaio sozietatearen webgunean argitaratutako iragarki baten bidez. Deialdia ez badago sortuta, inskribatua eta argitaratua Kapital Sozietateei buruzko Legearen Testu Bateginaren 11. bis artikuluan jasotako baldintzetan, deialdia "Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean" argitaratuko da, baita egoitza soziala kokatuta dagoen probintzian zirkulazio handienetakoa duen egunkari batean ere.

Halaber, batzarrerako deialdia egin dela ulertuko da, eta batzarra edozein gai jorrazteko baliozko moduan eratutakotzat joko da, Arabako Foru Aldundiko Foru Gobernu Kontseiluko kide guztiek ordezkariak badute eta bertaratuek aho batez onartzen badute batzarra izaera unibertsalez egitea.

12. artikulua. Batzar Nagusietara bertaratzea eta ordezkariak

1. Administrazioaileak Batzar Nagusiaren bileretara bertaratu beharko dira. Presidenteak baimena eman ahalko du, edo agindu ahalko du, gai sozialak ondo jorrazteko zuzendariak, kudeatzaileak, teknikariak eta abar bertaratzeko. Batzar Nagusiak, dena den, baimen hori baliogabetu ahalko du.

2. Berariaz ezarri da telematikoki eta bideokoferentziaz Batzar Nagusira bertaratzeko eta hura bitarteko horien bidez egiteko aukera, baldin eta pertsonaren nortasuna egiaztatzeke aukera behar bezala bermatzen bada. Deialdian deskribatu egingo dira Batzar Nagusia modu ordenatuan garatzeko administrazioaileek aurreikusitako akziodunen eskubideak erabiltzeko epeak, formak eta moduak. Zehazki, administrazioaileek ezarri ahalko dute legearen arabera telematikoki bertaratu behar dutenek egiteko asmoa duten mintzaldiak eta erabaki proposamenak sozietateari bidali beharko zaizkiola Batzar Nagusia eratu aurretik. Batzar Nagusiak iraun bitartean informazio eskubidea erabiltzen duten akziodunen erantzunak idatziz egingo dira, Batzar Nagusia amaitu eta zazpi eguneko epean.

3. Arabako Foru Aldundiko Foru Gobernu Kontseiluko edozein kidek, organo hori Batzar Nagusian eratzean, erabaki ahalko du kontseilu horretako beste kide batek bera ordezkatzeko batzarrean.

Ordezkaritza hori idatziz edo legean urrunetik bozkatzeko eskubidea erabiltzeko ezarritako baldintzak betetzen dituzten urruneko komunikazio bitartekoen bidez jakinarazi beharko da, batzar nagusi bakoitzerako.

Ordezkaritza hori beti atzera bota ahalko da. Batzar Nagusira ordezkaturik bertaratu bada, atzera botako da ordezkariak.

13. artikulua. Erabakiak hartzea

1. Erabakiak bertaraturik edo ordezkaturik emandako bozen gehiengo soilaren bidez hartuko dira, Kapital Sozietateei buruzko Legeak, hari gero egindako aldaketek eta alor horretako beste legeek inguruabar eta erabaki jakin batzuetarako ezartzen dituzten quorumei jarraituz.

2. Behin gai bat bozkatu eta bozak zenbatutakoan, presidenteak emaitza adieraziko du, eta, hala badagokio, erabakia baliozkotzat joko du.

3. Erabaki baten aurka bozkatu duen edozein bertaraturik eskubidea du Batzar Nagusiaren aktan jasota gelditzeko hartutako erabakiaren aurka dagoela.

1. KAPITULUA ADMINISTRAZIO ORGANOA

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

14. artikulua. Administrazio organoaren egitura

1. Sozietatea administrazio kontseilu batek administraturiko du, 3 kide baino gutxiago eta 10 baino gehiago izango ez dituenak.

2. Administrazio organoko kide izendatzeko ez da beharrezkoa Foru Gobernu Kontseiluko kide izatea.

Kontseiluko kideak libreki izendatuko ditu Batzar Nagusiak, eta aplikagarriak izango zaizkie 53/1984 Legean, abenduaren 26koan, eta une bakoitzean aplikagarria den legedian adierazitako ordezkariak karguak betetzeko ezintasunak eta bateraezintasunak. Horrek ez du eragotziko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuan, uztailaren 2koan, Kapital Sozietateen Legearen Testu Bategina onartzen duenean, xedatutakoa.

3. Administrazio organoko kideek beren kargua lau (4) urtez beteko dute, eta behin edo gehiagotan aukeratu ahal izango dituzte berriz, iraupen bereko aldietarako.

4. Kooptazioz izendatutako administrazio organoko kideak beren kargua Batzar Nagusiaren lehen bilerako datara arte egongo dira karguan.

5. Administrazio organoko kideek kargua utziko dute Batzar Nagusiak hala erabakitakoan, sozietateari uko egitea edo dimisioa jakinarazitakoan, edo izendapenaren aldia igarotakoan. Azken kasu horretan, kargua uzteak eragina izango da hurrengo batzar nagusia lehen aldiz bildutakoan edo aurreko ekitaldiko kontuak onartzea ebatzi behar duen batzarra egiteko legezko aldia igarotakoan.

2. ATALA

15. artikulua. Administrazio Kontseilua

1. Batzar Nagusiak Administrazio Kontseiluko presidentea izendatuko du eta, hautaz, presidenteorde bat edo batzuk. Hainbat presidenteorde badaude, presidenteordezak zenbakituta egongo dira. Zenbakien hurrenkera berdinean ordeztuko dute presidenteordeek presidentea ez badago, ezin badu jardun edo kargua hutsik badago.

2. Batzar Nagusiak Administrazio Kontseiluko idazkaria izendatuko du eta, hautaz, idazkariorde bat, baina horiek ezingo dira kontseiluko kide izan. Kontseiluko saioetan parte hartuko dute: hitza izango dute, baina botorik ez. Idazkariordeak idazkaria ordeztuko du ez badago, gaixo badago, ezin badu jardun edo kargua hutsik badago.

Honako hauek izango dira idazkariaren zereginak:

- a) Administrazio Kontseiluko dokumentazioa gordetzea, akta liburuetan saioen garapena jasota lagatzea eta edukiaren eta emandako ebazpenen fede ematea.
- b) Administrazio Kontseiluko jarduketek aplikagarria den araudiari jarraitzen diotela bermatzea, eta estatutu sozialekin eta gainerako barne araudiarekin bat datozela.
- c) Presidenteari laguntzea kontseiluko kideek beren funtzioa ondo betetzeko behar besteko denboraz informazio egokia formatu egokian jaso dezaten.

16. artikulua. Administrazio Kontseiluaren deialdia

1. Administrazio Kontseiluaren deialdia presidentek egingo du, beharrezko edo egoki deritzon, edo, hilez gero, ez badago, ez bada jarduteko gai edo ezin badu, presidenteordeak edo haren funtzioa duenak, edo gutxienez kontseilarien heren batek (1/3) eskatzen diotenean. Azken kasu horretan, presidentek edo haren funtzioa duenak nahitaez egin beharko du Kontseilurako deialdia, hamabost (15) egun naturaleko epean, gehienez ere, deialdiaren eskaera jasotzen den unetik zenbatzen hasita.

Kontseilukideen heren bat gutxienez osatzen duten administratzaileek dei egin ahal dute, eta gai zerrenda helarazi beharko dute, egoitza soziala dagoen udalerrian egiteko, baldin eta presidenteari eskatu ondoren hark hilabeteko epean deialdia egin ez badu.

2. Deialdia kontseilukide bakoitzari bidalitako eskutitz baten bidez egingo da. Hura fax edo mezu elektronikoz bidez bidaliko da, gutxienez bilera baino bi (2) egun baliodun lehenago. Deialdiaren eskutitzak gai zerrenda gisa proposatutako gaiak zehaztuko ditu, kontseilukide guztiek informazioa izan dezaten bilera egin aurretik.

3. Salbuespen moduan, presidenteak edo haren funtzioa duenak Administrazio Kontseiluaren bilera batera deitu ahalko du telefax edo mezu elektronikoz bidez, aurretiazko epeari eta aurretik azaldutako betekizunei erreparatu gabe, bere iritziz hori justifikatzeko salbuespenezko inguruabarrak daudenean.

4. Administrazio Kontseilua baliozko moduan eratu dela ulertuko da, deialdirik behar izanik gabe, kide guztiak bertaratuta edo ordezkaturik badaude eta aho batez onartzen badute saioa egitea.

17. artikulua. Kontseilua biltzeko lekua

1. Administrazio Kontseiluaren saioak egoitza sozialean egingo dira, salbu eta deialdian beste leku batean egingo dela adierazten bada.

2. Salbuespen moduan, eta ezin kide aurka ez badago, Kontseilua saiorik gabe eta idatziz edo bitarteko telematikoz, bideokonferentziaz edo telefonozko konexio anizkoitzez egin ahalko da, Batzar Nagusiak egiteko estatutu hauetan ezarritako betekizun eta baldintza berberekin.

18. artikulua. Administrazio Kontseilua eratzea

1. Administrazio Kontseilua baliozko moduan eratuta geldituko da, edozein gairen inguruan eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko, saiora kideen erdiak gehi bat azaltzen badira, bertaratuta edo ordezkaturik.

2. Administrazio Kontseiluko kideek beste kontseilukide bat bakarrik eskuordetu ahalko dute beraiek ordezkatzeko.

3. Ordezkaritza idatziz eman beharko da, saio bakoitzean presidenteari edo bere funtzioa duenari zuzendutako idazki baten bidez.

19. artikulua. Administrazio Kontseiluak eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko modua

1. Presidenteak eztabaidatzeko aurkeztuko ditu gai zerrendako gaiak.

2. Behin presidenteak iritzi dionean gaia nahikoa eztabaidatu dela, bozketa hasiko du, eta bertaratutako edo ordezkaturik kontseilukide bakoitzak bozkatu egin beharko du.

3. Erabakiak saioan bertaratuta edo behar bezala ordezkaturik dauden kontseilukideen gehiengo absolutuz hartuko dira.

4. Administrazio Kontseiluko saioaren akta Kontseiluko idazkariak egingo du eta, hura ez badago, idazkariordeak. Horiek ez badaude, saioko parte-hartzaileek saioko idazkari gisa izendatutakoak egingo du akta.

5. Akta Kontseiluak berak onartuko du saioa amaitutakoan edo hurrengo saioan.

3. ATALA

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN ESKUMENA

20. artikulua. Administrazio ahalmenak eta eskumenak

Legez edo estatutuetan Batzar Nagusiari esleitutako gaietan izan ezik, Administrazio Kontseilua da sozietateko erabaki organo gorena, eta hura administratzeko beharrezko eskumen guztiak ditu.

Adibidez, baina ez hauek mugatuta:

1. Administrazio Kontseiluak eskumena du erabakiak hartzeko estatutu sozialek edo legeek bazkide bakarrari Akziodunen Batzar Nagusiaren eskumenak erabiliz ebazteko esleitzen ez dizkion gai guztien inguruan.

2. Administrazio Kontseiluari dagozkio sozietatea kudeatzeko, zuzentzeko, administratzeko eta ordezkatzeko eskumen eta ahalmen guztiak. Oro har, sozietatearen kudeaketa eta zuzendaritza arrunta kontseilukide exekutiboek eta zuzendariek utziko die, eta bere jarduna funtsean gainbegiratzeko funtzio orokorrean oinarrituko du, baita sozietatearentzat garrantzi berezia duten gaiak kontuan hartzean ere.

3. Zehazki, Administrazio Kontseiluaren eskumena da aurrekontuen aurreproiektuak onartzea aurrekontuei buruzko foru araei eta Arabako Foru Aldundiak emandako ebazpenei jarraituz, baita sozietatearen aurrekontuak eta programak egitea ere, dagozkion baimenak eta fiskalizazioak gorabehera.

4. Ezingo ditu eskuordetu legez edo estatutuen arabera Administrazio Kontseiluari zuzenean dagozkion eskumenak.

5. Edozein kasutan ere, Administrazio Kontseiluak ezingo ditu honako ahalmen hauek eskuordetu:

a) Bere antolakuntza eta funtzionamendua ezartzea.

b) Urteko kontuak, kudeaketako txostena eta sozietatearen emaitza aplikatzeko proposamena egitea. Dokumentu horiek sozietatearen ondarearen, finantza egoeraren eta emaitzen eredu fidela eman beharko dute, aplikagarria den legedian xedatutakoari jarraituz, eta bazkide bakarrari aurkeztu beharko zaizkio, Akziodunen Batzar Nagusiaren eskumenak darabiltzanean.

c) Legeak Administrazio Kontseiluari eskatutako edozein txosten mota egitea, baldin eta txostenaren xede den eragiketa ezin bada eskuordetu.

d) Administrazio Kontseiluko barne karguak izendatzea eta berritzea, baita haren barruan sor daitezkeen batzordeetako kideak eta karguak ere.

e) Sozietateko zuzendariak izendatzea eta kargugabetzea erabakitzea, eta haien ordainsariak, aldizkako konpentsazioak edo kargugabetuz geroko kalte ordainak ezartzea, baita haien kontratuen gainerako oinarrizko baldintzak ere. Hori guztia kontseilukide delegatuak egingo du, halakorik badago. Ondore horietarako, zuzendaritzat joko dira zuzenean Administrazio Kontseiluaren edo haren kideren baten mendean daudenak.

f) Bazkide bakarrak Akziodunen Batzar Nagusiaren eskumenak erabiliz hartutako erabakiak egikaritzea.

g) Kontseiluak berak edo administrazio organo delegatuek onartu beharreko sozietatearen botere orokorren egitura definitzea.

6. Halaber, Administrazio Kontseiluak ezingo du eskuordetu gainbegiratze funtzio orokorrari lotutako eskumenen esparruan, jarraian zerrendatutako gairik:

a) Hala badagokio, eraturako batzordeen egiazko funtzionamendua eta organo delegatuen eta izendatutako zuzendarien jarduketa gainbegiratzea.

b) Sozietatearen estrategia eta politika orokorraren ildoak formulatzea, xede sozialean jasotako jarduera guztiak egiteko programak sortzea eta helburuak zehaztea.

c) Sozietatearen kudeaketa sustatzea eta gainbegiratzea, baita ezarritako helburuak betetzen direla ere.

d) Kontrol politika eta arriskuen kudeaketarena ezartzea, sozietatearen arrisku nagusiak identifikatzea eta barne kontroleko sistemak eta informazio sistema egokiak antolatzea, baita sistema horien aldizkako jarraipena egitea ere.

21. artikulua. Ahalmenak eskuordetzea

1. Administrazio Kontseiluak modu iraunkorrean eskuordetu ahalko ditu hainbat kontseilukide delegatu bere ahalmen guztietarako edo batzuetarako, eta organo delegatuaren titular izango diren kontseilukideak izendatu ahalko ditu, eta, hala badagokio, kontseilukide delegatuei emandako ahalmenak erabiltzeko modua ere erabaki ahalko du.

2. Kargu horiek bete behar dituzten kontseilukideak ahalmenetarako modu iraunkorrean eskuordetzeko eta eskuordetzea amaitzeko, kontseilukideen bi herenek alde bozkatu beharko dute, eta horrek ez du eraginik izango Merkataritza Erregistroan inskribatu arte.

3. Inola ere ezingo da inor eskuordetu Batzar Nagusiari kontu emateko eta balantzeak aurkezteko, ezta Batzar Nagusiak Administrazio Kontseiluaren esku utzitako zereginetarako ere, salbu eta Batzar Nagusiak berariaz baimena ematen badu.

4. Eskuordetze hori gorabehera, Administrazio Kontseiluak bere esku utzitako ahalmenak mantenduko ditu.

22. artikulua. Ordezkaritza boterea

1. Ordezkaritza boterea, epaiketetan eta bertatik kanpo, Kontseiluari dagokio, eta kolegiatuta jardungo du.

Halaber, Administrazio Kontseiluko presidentek ere sozietatea ordezkatzeko boterea izango du.

2. Organo delegatuak ordezkatzeko boterea eskuordetze erabakian xedatutakoaren arabera izango da. Aurkakoa adierazi ezean, ulertuko da ordezkaritza boterea hein berean eman zaiela kontseilukide delegatuei.

23. artikulua. Administrazio Kontseiluko presidentea

1. Honako hauek dira presidentearen zereginak:

a. Administrazio Kontseiluko bileretarako deialdia egitea eta bertako buru izatea, ebazteko eta eteteko ahalmenarekin. Eztabaidak zuzentzeko, hitza emateko eta parte-hartzeen iraupen aldia ezartzeko eskumena du.

b. Administrazio Kontseiluko bileren gai zerrenda ezartzea.

c. Bileretara Administrazio Kontseilua osatzen duten guztiak bertaraten direla bermatzea. Horretarako, deialdiak behar bezala eta epe barruan bidaliko ditu.

d. Kontseilukideren bat Administrazio Kontseilura ez bertaratzeko kausak egiaztatzea, behin eta berriz gertatuz gero.

e. Administrazio Kontseiluaren eta Batzar Nagusiaren erabakiak egikaritzea eta betearaztea.

f. Administrazio Kontseiluko funtzionamenduaren ebaluazioa gainbegiratzea, hartatik eratorritako hobetzeko proposamenak abian jartzea, hala badagokio, edo hautemandako gabeziak zuzentzea.

2. Presidenteak kalitatezko botoa du, berdinketak ebazteko.

24. artikulua. Administrazio Kontseiluko presidenteordea

1. Presidenteak ezin badu jardun ez dagoelako edo ezintasunen bategatik, haren zereginak presidenteordeak egingo ditu, baita ahalordez, eskuordetuta edo hirugarrenek aginduta egin beharrekoak ere, baldin eta kargu hori edukitzeagatik agindu bazaizkio presidenteari.

2. Posible bada, ordezkapenaren arrazoiak jasota utzi beharko dira, baita presidentea ordezkapen horrekin ados dagoela ere. Ordezkapen hori kasu guztietan jakinarazi beharko zaie Administrazio Kontseiluko kide guztiei.

3. Ordezkapen hori berehala etengo da hura arrazoitu ziren kausak ez daudenean.

4. ATALA

ERABAKI SOZIALAK AGERKARI PUBLIKORA BIDALTZEA

25. artikulua. Agerkari publikora bidaltzeko ahalmena duten pertsonak

1. Administrazio Kontseiluko idazkariari dagokio eta, hala badagokio, bertako idazkariordeari, sozietatearen organoek hartutako erabakiak agerkari publikora bidaltzea.

2. Erabaki sozialak agerkari publikora bidali ahalko dituzte ere dagokion organoak erabakiak hartu diren saioan horretarako berariaz ahalmena eman dien Administrazio Kontseiluko kideek, eta, bestela, presidenteak, presidenteordeek eta kontseilukide delegatuek.

3. Edozein kasutan, agerkari publikora bidaltzeko eskumena dutenen kargua indarrean egon beharko da, eta Merkataritza Erregistroan inskribatuta.

IV. TITULUA URTEKO KONTUAK

26. artikulua. Urteko kontuak egitea

1. Legezko epearen barruan, administratzaileek urteko kontuak egin eta sinatu egingo dituzte, baita emaitzaren aplikazio proposamena eta kudeaketako txostena ere.

2. Halaber, hala badagokio, urteko kontu eta kudeaketako txosten bateratuak egin eta sinatu egingo dituzte, Legeak aurreikusitako moduan.

3. Sozietatearen oroitidazkian administratzaileen edo haien kontura jarduten dutenen eragiketen berri eman beharko da, sozietatearekin egindakoak urteko kontuen xede den ekitaldi sozialean, edo talde bereko beste sozietate batekin egindakoak, eragiketak sozietatearen ohiko trafikotik kanpokoak badira edo merkatu baldintzetan egiten ez badira.

4. Horrez gain, administratzaileek jakinarazi egin beharko dute beraiek edo haiekin lotura duten pertsonen zein partaidetza duten xede sozial bera, baliokidea edo osagarria duen sozietateren baten kapitalean, baita bertan dituzten karguak edo zereginak ere, eta beren kontura edo besteren kontura xede soziala osatzen duen jarduera bera, baliokidea edo osagarria egiten duten.

27. artikulua. Ekitaldi soziala

Sozietatearen ekitaldi soziala urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean hasiko da, eta abenduaren 31n amaituko.

28. artikulua. Urteko kontuak egiaztatzea

Urteko kontuak eta kudeaketako txostena kontu auditoreek berrikusi beharko dituzte, Legeak aurreikusitako moduan.

29. artikulua. Urteko kontuak onartzea eta gordailutzea

1. Urteko kontuak Akziodunen Batzar Nagusiak onartu beharko ditu, ohiko saioan.

2. Behin urteko kontuak onartutakoan, Batzar Nagusiak ebatziko du ekitaldiaren emaitza nola aplikatu.

Batzar Nagusiak erabakitzen badu dibidenduak banatzea, erabaki egingo du zein unetan eta modutan ordaindu, eta administrazio organoari ere agindu ahalko dio erabaki hori hartzeko. Batzar Nagusiak erabaki ahalko du dibidendua gauzaz ordaintzea, baina, kasu horretan, soilik iazera homogoneoa duten ondasunak edo eskubideak erabili ahalko dira.

3. Urteko kontuak onartu eta hurrengo hilabetean, administratzaileek urteko kontuak onartzeko eta emaitza aplikatzeko Batzar Nagusiaren erabakien egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte, egoitza sozialaren Merkataritza Erregistroan jasotzeko, eta haien kontu horien kopia bat atxikiko diete, baita, hala badagokio, kudeaketako txostena eta auditoreen txostena ere.

V. TITULUA SOZIEATEA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

30. artikulua. Sozietatea desegitea

Sozietatea 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuan, uztailaren 2koan, Kapital Sozietateen buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenean, jasotako kausengatik desegingo da, eta horrek bertan aurreikusitako ondoreak izango ditu.

31. artikulua. Likidatzaileak. Desegindako sozietatearen ordezkaritza boterea

1. Behin sozietatea desegindakoa, kargua indarrean eta Merkataritza Erregistroan inskribatuta duten administratzaileak zuzenbidez likidatzaile bihurtuko dira, salbu eta sozietateak desegitea erabakitzean beste batzuk izendatzen baditu. Administratzaile kopurua bikoitia bada, horietatik gazteena ez da likidatzaile izango.

2. Sozietatea deseginez gero, ordezkaritza boterea hein berean izango dute likidatzaile guztiek, edozein zela ere administratzaileei esleitutako ordezkaritza boterearen araubidea.

**VI. TITULUA
BESTE XEDAPEN BATZUK****32. artikulua. Sozietatearen jardueren kontrola**

Arabako Foru Aldundiak arlo ekonomikoan beharrezko irizitako tutoretza funtzio guztiak beteko ditu, baita aplikagarriak diren xedapenen ondorioz nahitaez egin beharrekoak ere.

33. artikulua. Sozietateko langileak

Sozietateko langileak lan kontratuen araubidearen mende daude, eta sozietateari atxikita egoteak ez die Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionario izaera ematen.

34. artikulua. Aplikatzekoa den araudia

Estatutu hauetan aurreikusi gabeko guztirako, aplikagarriak izango dira, adierazitako hurrenkeran, sozietatea anonimoentzako manu orokorrak eta, hala badagokio, onartutako foru araudi espezifikoak.